

OHIZKO OSOKO BILKURA

2017.07.27

Tolosako Udaletxean, 2017ko uztailaren 27an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de julio de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Behin Behineko idazkaria:
Angel Uranga Txurruka

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2017ko ekainaren 27ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

Orden del día

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 27 de junio de 2017.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2017ko ekainaren 1etik 30era (2017/978-2017/1.197).
3. 2016ko Kontu Orokorren onarpena
4. 1348/2017 (2017/6 kreditu transferentzia) eta 1350/2017 (2017/7 kreditu gehigarria) dekretuen jakinarazpena.
5. 2017/7 kreditu aldatetaren espedientea. Egonkortasunari buruzko txostenaren komunikazioa Udalbatzarrari.
6. 2017ko aurrekontuaren 1. seihilabeteko exekuzioa.
7. Gizarte Politikako diru-laguntzen oinarri espezifikokoak. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak arautzen dituen ordenantza. Hasierako onarpena.
8. Tolosako udalerrian jasangarritasunaren eremuan ekintzak antolatzeko diru-laguntzen ordenantza. Hasierako onarpena.
9. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.
10. Erabateko dedikaziorik edo dedikazio partzialik ez duten Korporazio partaideen ordainsariak. 2017ko igoeraren onarpena.
11. Udal langileen zein erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren Korporazioko kideen ordainsarien igoera onartzea.
12. Galderak eta eskaerak.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía: Del 1 al 30 de junio de 2017 (2017/978-2017/1.197).
3. Aprobación de la Cuenta General del ejercicio del 2016.
4. Dar cuenta de los decretos 1348/2017 (transferencia de crédito 2017/6) y 1350/2017 (Crédito adicional 2017/7).
5. Expediente de modificación de créditos 7/2017. Comunicación al Pleno del informe sobre estabilidad presupuestaria.
6. Ejecución del primer semestre del presupuesto del 2017.
7. Bases específicas de las subvenciones de Política Social. Ordenanza reguladora de las ayudas municipales de garantía de ingresos y para la inclusión social. Aprobación inicial.
8. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de las subvenciones para la organización de actividades del ámbito de la sostenibilidad en el municipio de Tolosa.
9. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.
10. Aprobación del incremento de 2017 de las retribuciones de los/las miembros de la Corporación sin dedicación parcial o completa.
11. Aprobación del incremento de las retribuciones de los empleados y empleadas públicas y de los/las miembros de la Corporación con dedicación completa o parcial.
12. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1. Ondorengo akta onartzea:
2017ko ekainaren 27ko Ohizko
Osoko bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 27 de junio de
2017.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da. Angel Urangak, behin behineko Idazkariak, adierazi du aurreko plenoan, 7. puntua, Ekintzaileen coworking-erako Oriaburu gune arautuko duen ordenantzaren akordioa kanonaren inguruko txostenari baldintzatuta laga zela. Txosten hori batzarkideei banatu zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri
ematea:
2017ko ekainaren 1etik 30era
(2017/978-2017/1.197).**

**2. Dar cuenta de los decretos emitidos
por la alcaldía:
Del 1 al 30 de junio de 2017
(2017/978-2017/1.197).**

Alkatetzak 2017ko ekainaren 1etik 30era bitartean (2017/978-2017/1.197) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**3. 2016ko Kontu Orokorraren
onarpena.**

**3. Aprobación de la Cuenta General del
ejercicio del 2016.**

Udalaren 2016ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra jendaurrean jarri zen, hamabost eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Hori horrela, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko ekainaren 23an eta udaletxeko iragarki taulan argitara eman zen eta, epe barruan, ez da inolako erreklamaziorik edo oharpenik aurkeztu. Hori guztia kontutan izanik, Kontu Batzorde bereziak 2017ko ekainaren 21ean emandako diktamenaren arabera, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako 2016ko Udal Sektore publikoaren kontu orokorra onestea. Kontu orokorra honoko agiri hauek osatzen dute:

Udalaren Kontua.

Iurramendi Egoitzaren Kontua.

Erretengibel, S.A.ren Kontua.

Tolargi, S.L.ren Kontua.

Tolosa Lantzen, S.A.ren Kontua.

Tolosa Gasa, S.A.ren Kontua.

Tolosa Lotzen, S.A.ren Kontua.

Udal Sektore publikoaren Kontu Bateratua.

BIGARRENA.- Espedientearen berri Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Foru Aldundiari eta Kontuhartzailletza departamentuari ematea.

4. 1348/2017 (2017/6 kreditu transferentzia) eta 1350/2017 (2017/7 kreditu gehigarria) dekretuen jakinarazpena.

4. Dar cuenta de los decretos 1348/2017 (transferencia de crédito 2017/6) y 1350/2017 (Crédito adicional 2017/7).

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria: "6. kreditu aldaketa transferentzia modalitatean egin dira, Gaztediko departamentutik eskatuta, hau da 4. kapitulutik 2. kapitulura pasa da 3500,00 € Beantatuz programa aurrera eramateko. Dirulaguntza moduan aurreikusten zen baina departamentuan ikusi zen jarduera barruan hobeto joango zela. Programa berdinerako direnez, alkatearen eskumena da hau egitea eta horrela egin da. Bestalde 7.a kreditu gehigarria da. Kasu honetan 11.500,00€ erabiltzen dira bi zatitan banatuz: 6.500€ dira merkataritza departamentuarentzat aurre egiteko Gune Biziaeren proiektuaren barruan Errementari kalean egin behar diren ekintza batzuei. Eta beste 5.000 € sortu dugu partida berri bat, orain arte ez zegoena aurrekontuetan, eta da Oria buruko mantenimenduko gastuei aurre egiteko. Kasu honetan 11.500,00€ hauek lotzen dira gerakinetatik eta gainditzen ez duten alkateak duen eskumenak gainditzen ez zenez, dekretuaren bidez egin dira."

Kontuhartzaileak, 2017ko aurrekontuari dagozkion 6. eta 7. kreditu aldaketarako espedienteen kontu eman du.

Seigarren espedientea kreditu transferentzia modalitatean egin da, eta kreditua transferitzen eta jasotzen duten partidak hauek dira:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0800.481.01.337.20 2017	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.GAZTERIA	18.000,00	3.500,00	14.500,00
	GUZTIRA	18.000,00	3.500,00	14.500,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0800.226.06.337.20 2017	JARDUERA SOZIO KULTURALAK.GAZTERIA	60.700,00	3.500,00	64.200,00
	GUZTIRA	60.700,00	3.500,00	64.200,00

Zazpigarren espedientea kreditu gehigarrien modalitatekoa izan da, eta kredituen gehikuntza, guztira, 11.500,00 eurokoa da. Kreditu aldaketa honek ez du gainditzen Alkateak duen eskumena 2017an.

Partiden aldaketen xehetasuna hau da:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1100.226.99.431.00 2017	Hainbat gastu. Merkataritza	17.500,00	6.500,00	24.000,00
1 1100.221.99.430.20 2017	Bestelako hornidurak. Oriaburu	0,00	5.000,00	5.000,00
	GUZTIRA	17.500,00	11.500,00	29.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2017	ALTXORTEKIKO GERAKINA	11.500,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			11.500,00

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

5. 2017/7 kreditu aldaketaren espedientea. Egonkortasunari buruzko txostenaren komunikazioa Udalbatzarrari.

5. Expediente de modificación de créditos 7/2017. Comunicación al Pleno del informe sobre estabilidad presupuestaria.

Kontuhartzaileak 2017/7 kreditu aldaketaren espedienteari buruz egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

“Administrazio izaera duten entitateen 2017ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 7/2017 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua, baina ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Gipuzkoako toki entitateen jarraitu beharreko erregelak 2017rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelari ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Tolosako Udalaren kasuan, 2017ko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.

Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.

Hau dela eta, kontu-hartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

*Tolosako Udalaren 7/2017 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2017ko behin-betiko aurrekontuak **2.728.394,82** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.*

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

7/2017 kreditu aldaketa egin aurretik behin-betiko aurrekontuak 2.716.894,82 euroko defizita zuen. Beraz, 7/2017 kreditu aldaketarako espedienteak 11.500,00 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2017	Aldaketa 1/2017	Aldaketa 2/2017	Aldaketa 3/2017	Aldaketa 4/2017	Aldaketa 5/2017	Aldaketa 6/2017	Aldaketa 7/2017
Sarrerak Kap.1-7	29.611.055,00	29.838.359,17	29.910.978,60	29.910.978,60	29.979.482,42	29.979.482,42	29.979.482,42	29.979.482,42
Gastuak Kap. 1-7	28.482.655,00	30.962.540,33	31.981.142,85	32.527.610,16	32.596.113,98	32.696.377,24	32.696.377,24	32.707.877,24
Superabita / Defizita	1.128.400,00	-1.124.181,16	-2.070.164,25	-2.616.631,56	-2.616.631,56	-2.716.894,82	-2.716.894,82	-2.728.394,82
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.252.581,16	3.198.564,25	3.745.031,56	3.745.031,56	3.845.294,82	3.845.294,82	3.856.794,82
Finantzaketa ahalmena		1.128.400,00	1.128.400,00	1.128.400,00	1.128.400,00	1.128.400,00	1.128.400,00	1.128.400,00

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. Kreditu aldaketen espedienteak finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 3.856.794,82euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak hasierako 1.128.400,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren orde z Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen 2017ko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 7/2017 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez badu ere, entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra da eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen”.

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

6. 2017ko aurrekontuaren 1. sei hilabeteko exekuzioaren kontu ematea..

6. Dar cuenta de la ejecución del primer semestre del presupuesto del 2017.

21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua ezarritakoari jarraituz, Kontuhartzaileak 2017ko aurrekontuaren 1. sei hilabeteko exekuzioari buruzko ondorengo dokumentuak aurkeztu ditu:

- Sarrerak, kapituluka eta partidaka
- Gastuak kapituluka, kontzeptuka eta organuka

Dokumentuak aktari atxikituta gelditzen dira (1. eranskina).

Lehen hiruhilabeteko informazioa aurkezteko erabili ziren egitura berdineko dokumentuak erabili dira.

Batzordekideek jakinaren gainean geratu dira.

7. Gizarte Politikako diru-laguntzen oinarri espezifikoak. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak arautzen dituen ordenantza. Hasierako onarpena.

7. Bases específicas de las subvenciones de Política Social. Ordenanza reguladora de las ayudas municipales de garantía de ingresos y para la inclusión social. Aprobación inicial.

Partehartzeak:

... Alkatea: *“Udal diru laguntza hauek gizarte politikaren barruan udal eskumeneko dira. Bideratuta daude larritasun ekonomiko egoeran dauden pertsonen eta familien, bizikidetzaren unitateen eta baita ere bereziki babesa ematen diren gizarteratze prozesu batean murgilduta dauden pertsonen. Izan litezke itzuli beharrik gabekoak eta horiek eman aurretik gastua beharrezkoa dela egiaztatu behar izaten da eta izan litezke maileguaren moduan ematen direnak. Egiten da arreta pertsonalizatuaren plan bat. Hori Gizarte Zerbitzuko*

departamentutik egiten da proposamen txosten bat eta baldintza batzuk bete behar izaten ditu. Udal diru laguntza hauek ematen ari dira udal honetan aspeditik baina gaur egiten duguna da erregulazioa onartu ordenantza hauek onartze aldera “.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak arautzen dituen ordenantza eta honi dagozkion eranskinen proposamena aurkeztu da.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko uztailaren 19ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena: Dirusarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

Bigarrena: Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betiko bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

8. Tolosako udalerrian jasangarritasunaren eremuan ekintzak antolatzeko diru-laguntzen ordenantza. Hasierako onarpena.

8. Aprobación inicial de la ordenanza reguladora de las subvenciones para la organización de actividades del ámbito de la sostenibilidad en el municipio de Tolosa.

Partehartzeak:

... Patxi Amantegi Zubiria, Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzu batzordeburua: *“Ordenantza honekin arautu egin nahi da administrazioak, udala kasu honetan, bere lan egin beharrak ditu naturaren alde, jasangarritasunaren alde eta baita klima aldaketaren kontrako ekintzetan. Zorionez badira hainbat herritar linea honetan jarri eta ideiak botatzen dituztenak. Gure ekintzetako bat izango da laguntza ematea herritar hauei. Ordenantza honekin arautuko egingo dugu zein arlotan joango diren laguntza hauek. Lau puntu dira biodibertsitatea ekosistemak eta ingurumen naturalak eskeintzen dituzten zerbitzuak ezagutzeko eta baliatzeko egiten diren lanak. Tolosan betidanik naturarekiko izan dugu sentsibilitate hori. Begiratu izan dugu asko kanpora, zorionez herritar asko dago orain balorean jartzen gure herrian ditugun baliabideak eta interesgarriak direnak. Badute balorean jartzeko gogo hori, zaintzeko eta besteak beste herritarrei eskura jartzeko informazio guztia hori. Nik uste dut alde horretan, eta beste guztietan ere, oso interesgarria izango dela hemendik bideratuko ditugun laguntza guzti hauek.”*

Tolosako udalerrian jasangarritasunaren eremuan ekintzak antolatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza proposamena aurkeztu da.

Ordenantza aztertu eta Ogasun Batzordeak 2017ko uztailaren 19ko diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena: Tolosako udalerrian jasangarritasunaren eremuan ekintzak antolatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onarpena ematea. Proiektua Web orrian publikatuko da.

Bigarrena: Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez interesatuek aurkeztu dezaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onartutzat joko da. Behin betiko bihurtzen denean, testua argitaratzea Udaleko iragarki taulan eta Aldizkari Ofizialean. Baita web orrian ere.

9. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.

9. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko uztailaren 19an jaulkitako diktamena:

“Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten den faktura hau 2017ko ekitaldian jaso da, baina 2016ko ekitaldiko faktura data du.

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA.ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2017-06-27	2016-03-22	0300.220.00.920.00	Auloce, S.A.U.	2597	Suscripción ESPUBLICO 2016	2.314,74
GUZTIRA						2.314,74

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2016ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2017ko

aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.”

10. Erabateko dedikaziorik edo dedikazio partzialik ez duten Korporazio partaideen ordainsariak. 2017ko igoeraren onarpena.

10. Aprobación del incremento de 2017 de las retribuciones de los/las miembros de la Corporación sin dedicación parcial o completa.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko uztailaren 19an jaulkitako diktamena:

“Batzordeak aho batez diktaminatu du erabateko dedikazioa edo dedikazio partziala ez duten zinegotziei %1eko igoera aplikatzea jasotzen dituzten ordainsarrietan, hau da, langileen soldataren igoera, eta irizpide hau hemendik aurrera mantentzea.

2017an igoera honek urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.”

11. Udal langileen zein erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren Korporazioko kideen ordainsarien igoera onartzea.

11. Aprobación del incremento de las retribuciones de los empleados y empleadas públicas y de los/las miembros de la Corporación con dedicación completa o parcial.

Partehartzeak:

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Zalantzarik gabe alde bozkatuko dugu, azken batean langileen erosi ahalmena pixkana berreskuratzeko bideratzeko delako %1 azken urteetako igoera hau. Oso eskas gelditzen da, izan ere 2010ean %5eko jaitsiera izan zutelako eta ondorengo urteetan izoztuta gelditu zaizkielako soldatak. Baina badirudi pixkanaka langileen baldintzak bermatze alderako bidean gaudela. Aprobetxatu nahiko nuke beste alditan bezala, 2012 erreformaren gaiarekin martxan jarri ginenean, orduko udal gobernuak, guk, komitearekin batera adostuko genuen akordio marko bat. Egia da legezketasunik ez daukala baina nolabait langileei beraien baldintzen inguruko marko bat eskaintzen die. Beraz, berriro ere, gaur egun, zuek, gobernuan zeundetenoiz gonbidatzen dizuet hori sinatzea”.*

Joan den ekainaren 28an Estatuko Aldizkari Ofizialean 3/2.017 Legea argitaratu zen, 2017 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. Bertan, beste hainbat gaien artean, 2017 urterako sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak ezartzen dira; oro har, ezingo dute % 1eko igoera baino gehiago eduki, 2016ko abenduaren 31ean zuten ordainsariekin. Xedapen hau aplikagarri izango da, bai funtzionari bai pertsonal laboral zein pertsonal ebentualari ere.

Onartzeko prozedurari dagokionez, udal langileen lan baldintzak, horien artean ordainsariak, udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko dira, guztia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuak bere 37 artikuluan ezarritakoaren baitan. Ondoren, Udalbatzak onartu beharko ditu hauek aplikagarri izateko.

Bestetik, erabateko dedikazioz edota dedikazio partzialez aritu behar diren korporazio kideen ordainsariak ere leudeke; hauei buruz, batetik, Estatuko Aurrekontu Orokorrak bere 32 xedapen gehigarrian ezarritakoaren baitan, 10.001 eta 20.000 biztanle artean dauden udalerrien karguentzat ezarritako ordainsariak ez dute 67.087,00 euro gordin urtean gaudituko eta bestetik, udaleko 2017ko aurrekontuaren exekuzio arauaren 34 artikuluan baitan, hauen ordainsarien igoerak udaleko pertsonalaren berdina izango direla ezartzen da.

Hortaz, Giza Baliabide eta Udal Antolakunza batzordeak 2017ko uztailaren 20an jaulkitako diktamena kontutan hartuta, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik.- Tolosako udaleko langileen (funtzionario, laboral zein pertsonal ebentuala) zein bere erakunde autonomo eta udal sozietateen ordainsariak % 1ean igotzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bigarrenik.- Erabateko dedikazioz edota dedikazio partzialez aritzen diren korporazio kideen ordainsariak ere % 1a igotzea 2017ko urtarrilaren 1eko eraginarekin..

12. Galderak eta eskaerak.

12. Ruegos y preguntas.

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *Kezka adierazi nahi dugu zenbait batzordeen maiztasun eskasa dela eta, batez ere, Personal batzordeari dagokionean. Kezkatuta gaude Personal batzordeko eta Personal saileko funtzionamendurakin. Guretzat oso saila garrantzitsua da., azkenean, barne funtzionamendurako ezinbestekoa delako personal sailak ondo funtzionatzea. Azkenengo aste honetan batzordea egin da, korrika eta presaka erabaki hau hartzeko baina horren aurretik eztabaidarako eta informaziorako azkeneko batzordea apirilean izan zen. Orduz gero, ez da batzorderik egin, abuztuan ere ez. Ez da egingo irailera arte. Batzordekideok ez dugu izango sei hilabeteetan zehar pertsonalaren inguruko inolako informaziorik. Kezkatuta gaude. Izan ere, urte hasieran erabaki genuen lanpostu balorazioarekin, berrikusketarekin hastea, horren inguruko informaziorik ez dago. Apirilean esan zen LKSeK egingo zuela. Urtarrilean aipatu zen hilabetero-hilabetero hasiko ginela balorazioarekin, hausnarketa egiten langile bakoitzarena. Ez dugu ezer egin. Langileek esandakoaren arabera zenbait errelebo kontratuekin gorabeherak daude, irailean*

zenbaiti informazioa eman behar zaie. Zenbait langilek kezka adierazi dute bere lanpostuaren inguruan. Kezkak dauzkate eta ez daukagu informaziorik, langileak ere ez. Zentzu horretan kezkatuta gaude.”

... Alkatea: “Kezka horiek ez dakit zeini eragiten dieten baina batzordean aipatu beharko dira. Eta batzordean maiztasunak jaitsi badira handitu egin beharko dira. Bermatu denek posible dutenean, ordutegiak konpatibilizatu bai oposizioko kideei eta baita gobernuan daudenei eta baita lanean daudenei ere. Arduratuko gara eta maiztasuna handitu egin beharko da.”

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): “Azkenean maiztasuna laugarren hilabetera goaz ezer egin gabe. Aipatu zen aste honetan egingo zela, eta jadanik ez da egin. Martxan segituko du sailak eta erabakiak hartzen segitu duzue baina jakinarazpenik ez daukagu.”

... Alkatea: “Erabakirik ez dela hartuko batzordetik pasa gabe ere esan nahi dizut”.

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *Uztaila hasiera Usabaleko gertaeren kontura aipamena egin nahiko nuke. Gau hartan Alkateak EITBn adierazpenak gazteleraz egiteak harritu zidan. Komentatu ondoren argitu zidan presioa jaso zuela kazetariak erderaz egiteko eskatu ziola eta ulertzen dut presio hori. Neuk ere egin dudalako nire jardun politikoetan. Berez horretan geldituko zen kontua Berrian irakurri izan ez banu Xabi Lasaren kronika. Honela dio: -Tolosako seiak.*

EITBk adierazpenetan erabili beharreko hizkuntza-tratamendua arautu berri du, esan zaigunez, euskarak toki gehiago izan dezan gaztelaniazko kateetan. Eguneroko praktikak, ordea, auzitan jartzen du printzipio hori lehenesten denik, zenbaitetan oso modu deigarrian. Azkeneko lagin asaldagarria asteazkenean izan genuen, Radio Euskadiko *Boulevard* saioko albistegian. Tolosako igerilekuko (Gipuzkoa) kloro intoxikazioa zela-eta, sei testigantza labur (bi esaldiz osatua bakoitza) eskaini zituzten: lau haur, alkatea eta suhiltzaile bat. Denak gaztelania hutsean. Seiak euskal hiztunak zalantzarik gabe, D eredua nagusi den herri euskaldun batean...-

“Kezka hori hain zuzen ere, nolabait, Tolosaren errealitate soziolinguistikoaren irudi distorsionatu bat ematen diolako behintzat Teleberri ikusten dutenei. Eta horrek gogora ekarri zidan pertsonalki lagun baten harridurak: kasualitatez, ETB2n kirolari famatu, ezagun bati, euskaraz erantzun zionean konturatu zenean euskeraz hitz egiten zuela. Gure iritsiz hori ez da egokia euskararen normalizaziorako, erabileraren onerako, liderrak euskaraz atera behar dugu euskal komunikabideetan, gure eskaera da Udalarari bidali diezaiola EITBri gutun bat adieraziz, gure iritsiz egokia izango litzatekeela EITBk Tolosako errealitate sozioaliguistikoa erakustea baita gaztelerako bere saioetan ere.”

... Alkatea: “Egia da azaldu zenigula zure kezka. Egia da *Boulevard* saioan adierazpen horiek entzundako pertsonak hartu dezaketela irudi distorsionatu bat herri honetan dagoen egoera soziolinguistikoaren inguruan. Hala ere, egoera hori kontestualizatu nahi dut. Irizpide bat izan daiteke, gehiago izan behar duela telebistarena gurea baino, nahiz eta guk eskaera egin dezakegun, ez zait gaizki iruditzen gainera hori egitea. . Baina pistinako gertaeraren ondoren egin behar ziren adierazpenak egoera oso kritiko batean, jendea urduri zegoen eta datu konkretu batzuk eman behar genituen. Nire lehenengo asmoa datu horiek oso zehatz-mehatz ematea zen eta jendeari lasaitasuna helaraztea. Egia da komunikabideak ETB1ek euskeraz eskatzen duen bezala, ETB2k adierazpenak gazteleraz eskatu zizkidaten momentu horretan. Baita aitortu behar dut adierazpenak erderaz egin behar dituztenean esfortzu gehigarri bat egin behar izaten dutela. Baina egin nahi izan nituen erderaz mezua zuzen helaraztea nahi nuelako. Beraz, ados egonda egiten duzun planteamenduarekin, askotan

mezuak helaraztea herritarrari uste dut inportantea dela, ahaztu gabe baita ere, badirela Tolosar asko euskera menderatzen ez dutenak, errealitate hor dagoela. Eta nik pertsona horiengan zuzendu nahi dudalako baita ere beraien gehien erabiltzen duten hizkuntzan, dela gaztelania. Kendu gabe, gure helburuak zeintzuk diren eta euskalduntze prozesuan udal honek egien dituen ahalegin guzti horietan aurrera egin behar dugula. Uste dut dela debate sakon bat dela eta iruditzen zait interesgarria euskara batzordean eta baita UEMArekin batera egiten diguten aholkularitza horretan gai hau atera eta eztabaida baten sartzea. agian, izan daiteke positiboa.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Orain dela dexente denbora UEMAk eskatu zion EITBri, hain zuzen UEMAKo herrietan kontuz horrelako kontuekin eta bistan dago horrela ez dela. Zure kasuan ulertu dezaket alkatea bezala, informazioa hori emateko gazteleraz emateko beharra sentitzea. Konpartitu dezaket edo ez osotasunera, baina badakit herritar bati mikrofono batekin kalean hurbiltzen zaionean ETBrako, erdaraz egitea eskatuta pertsona horiek zer sentitzen duen. Behartuta sentitzea nahiz eta erdaraz ondo espresatu ez. Eta ikusi dira irudi penagarriak EITBko Teleberrietan, erdaraz aritzeko zailtasunak dauzkanak erderaz adierazpenak egiten, zer irudi penagarria. Eta gure herriko irudiari mesederik ez dio egiten, ezta ere euskararen normalizazioari. Gauza bat da arduradun politikoaren momentu bateko erabakia onartu edo ez onartu eta beste kontua da gertakari hori dela eta, EITBko gaztelerazko hedabideek Tolosaren egoera soziolinguistikoari buruz eman zioten irudia Santurtziko bati. Ibarrako batek badaki ze egoera dagoen hemen baina ez Santurtziko batek. Eta hori transmititu zen. Iruditzen zaigu EITBri gogoraztea Tolosako egoera soziolinguistikoa bat dagoela ematea ez dagoela soberan. Niri ez dit kezkatzen arduradun politiko batek momentu zehatz batean hartutako jarrera, baina niri kezkatzen nau bigarren kasuak.”*

... Alkatea: *“Iruditzen bazaizu eskutitz hori zer terminoetan bidali Euskara batzordean erabaki dezakezue. Bestalde, Usabalgo istripua aipatu duzunez gaur ez dut adierazpenik egin nahi. bihar jarraipen bilera dugulako. Horren balorazio bat egingo dugu eta komunikabide publikoetan baina ez nuke ezer esan bilera hori egin aurretik.*

Bukatzeko aipamen bat egin nahi nuke. Gaur gauean ETBn, dokumental bat emango dute Juan Carlos Garcia Goena erail zutela 30 urte betetzen direlako. Erailketa oraindik argitu gabe dago nahiz eta GALEk bere gain hartu. Kasu horretan itzal asko eta galdera asko daude erantzunik gabe. Neu Juan Carlos Garcia Goenaren alargunarekin egon nintzen, Laura Martinekin eta aipatu zidan ETBk zuen asmoa dokumental hau egiteko eta bazuela itxaropena berriz ere gertatuko hori plazaratzean zerbait gehiago argitzeko itxaropen hori ere bazuela. Memoria historikoaren legeak egia eta justizia eta erreparazioa aipatzen ditu. Juan Carlos Garcia Goenaren erailketaren inguruan ez da bete memoria historikoaren legeak esaten duena eta betetzen ez den kasu bakarra ezta Tolosan. Horregatik Tolosako Udalak bere ekarpena egin nahi izan du dokumental hau babestuz. Esan nahi dut gaur gauen dagoen dokumental hori modu xume batean babestu duela Tolosako Udalak. Tamalez, badugu beste efemeride bat, Udaletxe honetan zinegotzi izan zen pertsonarena, Juan Mari Jauregiarena. 2002ko uztailaren 29an eraila izan zen Juan Maria Jáuregui Tolosan eta larunbat honetan omenaldi txiki bat urtero egiten dioten lekuan, lehenengo Batzar Nagusietan eta gero Legorretan.”

OHIZKO OSOKO BILKURA
2017.07.27

Besterik gabe, gaueko bederatiak laurden gutxietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

Sin más asuntos que tratar, siendo las veinte horas y 45, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

1. ERANSKINA

2017ko aurrekontuaren 1. seihilabeteko exekuzioa